



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko apirilaren 17a

39. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-26/MOC-00065. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita batzorde berezi bat eratu dadin Nafarroako LGTBI+ Kontseiluan, toki-esparruan LGTBI+ arloko politikei ekiteko. Oihana Gallo San Román andreak aurkeztu du (3. or.).
- 11-26/MOC-00066. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita Europako erakundeei formalki eska diezaien egin beharreko urratsak egiten has daitezen, defentsarako indar armatu bat abian jartzeko, estatu kideek soilik osatua, Europar Batasunean ezartzen diren baliabide eta helburuekin. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (4. or.).
- 11-26/MOC-00067. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen baititu Israelgo estatuak Palestinako populazio zibilaren aurka egindako erasoak eta genozidio-ekintzak. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak, Úrsula Pardo García andreak eta EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu du (6. or.).
- 11-26/MOC-00026. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita foru-lege proiektu bat aurkez dezan, lagun egiteko animalien edukitze arduratsua sustatzeko kenkari fiskalak ezartzeko. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak ezetsi du (8. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 11-26/POR-00119. Galdera, suteak prebenitze aldera neguan egindako lanei eta heldu den udan suteak itzaltzeko eta/edo ekiditeko jarduketa-proposamenei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (9. or.).
- 11-26/PES-00092. Galdera, aerosorgailu-palen bolumenari eta birpotentziazte-prozesuen bidez edo bizitza baliagarriaren amaierara iristeagatik birziklatutako bestelako osagaien bolumenari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (9. or.).
- 11-26/PES-00093. Galdera, Moves Planean artatu gabe dauden eskabideak Tximista programan sartzeari buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (10. or.).
- 11-26/PES-00094. Galdera, Etxegaray BHZko plantillaren salaketari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (11. or.).

- 11-26/PES-00095. Galdera, Nafarroan gizarte-bonu termikoa ordaintzeko atzerapenari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (11. or.).
- 11-26/PES-00096. Galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen desgaitasuna baloratzeari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (12. or.).
- 11-26/PES-000097. Galdera, erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileei desgaitasuna baloratzeari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (12. or.).
- 11-26/PES-00098. Galdera, sexuagatiko diskriminazio-kasu zehatzetan egindako salaketei edo kekei buruzkoa. Oihana Gallo San Román andreak egin du (13. or.).
- 11-26/PES-00099. Galdera, Nafarroako Gobernuaren Zaintza eta Segurtasun Pribatuko zerbitzuetako langileen 2024tik 2027ra bitarteko lan-osagarriari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (14. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-25/CIE-00005. Ikerketa-batzordea, Nafarroako Gobernuak azken lau legegintzaldietan Auzitegi Gorenaren Bigarren Salako Laugarren Ataleko 20775/2020 auzi berezian seinalatzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoei eginiko edo finantzatutako obra-lizitazio eta -esleipenak aztertzeke. Batzordearen konklusioak onesteko epea luzatzea (15. or.).

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

**11-26/MOC-00065. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-  
tzen baita batzorde berezi bat eratu dadin Nafarroako LGTBI+ Kon-  
tseiluan, toki-esparruan LGTBI+ arloko politikari ekiteko**

*OIHANA GALLO SAN ROMÁN ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihana Gallo San Román andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita batzorde berezi bat eratu dadin Nafarroako LGTBI+ Kontseiluan, toki-esparruan LGTBI+ arloko politikari ekiteko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Oihana Gallo San Román andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

LGTBIQ+ kolektiboek ekimenez taxutu zen 8/2017 Foru Legea, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa; izan ere, kolektibo horiek denbora asko zeramaten erreklamatzeko berariaz onets zedin arau bat euren eskubideak aitortzeko eta diskriminazioaren aitzinean babes erreala eskaintzeko. Nafarroan ez zegoenez arlo horretako arau-aurrekaririk, eskaria zuzenean sortu zen gizarte zibil antolatutik.

LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko 8/2017 Foru Legea onestea mugari bat izan zen Nafarroan LGTBI+ politikak garatzeko, eta sexu- eta genero-aniztasunaren aitorpen sozial eta politikoan sakontzea ekarri zuen, ekitate- eta errespetu-baldintza osoetan; izan ere, LGTBI+ pertsonen berdintasun erreala eta eraginkorra eta eskubideak bermatzeko printzipioak eta neurriak ezartzea eta arautzea du xede, sexu-orientazio-gatiko, genero-adierazpen-gatiko eta sexu- edo genero-identitate-gatiko diskriminazio ororen aurka, Nafarroako Gobernuak eta toki-entitateek eskumena duten eremu guztietan.

Arau-esparrua. 8/2017 Foru Legea, ekainaren 19koa, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa.

“Atariko titulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Foru-legearen xedea.

1. Foru-lege honen xedea da printzipioak, baliabideak eta neurriak ezartzea eta arautzea, LGTBI+ pertsonen eskubideak eta benetako berdintasun gauzatua erabat bermatzeko, bidea izanik sexu-joera, genero-adierazpen eta sexu- edo genero-identitate-gatiko diskriminazio ororen prebentzioa, zuzenketa eta deuseztapena, Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen eskumeneoak diren esparru publiko zein pribatuetan”.

“3. artikulua. Aplikazio esparrua eta betetze bermea.

1. Foru-lege hau aplikatuko zaio, Foru Komunitatearen esparruan, edozein pertsona fisiko edo juridikori, zuzenbide publiko edo pribatukoa izan, edozein dela ere haren egoera administratibo edo pertsonala.

2. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako toki entitateek eta haien mendeko edo haiekin lotuta dagoen edozein entitatek,

zuzenbide publiko zein pribatukoak izan, eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, foru-legea betetzen dela bermatuko dute, eta eraginkorra izan dadin behar diren baldintzak sustatuko dituzte, zeinek bere eskumenen esparruan. Ildo horretatik, sexu-joerari, genero-adierazpenari eta sexu- edo genero-identitateari buruzko ekintza positiboak lagunduko dituzte, eta, halaber, Erkidegoko LGTBI+ asoziazionismoari eta dituen proiektuei sostengua emanen diete”.

Onetsi zenetik 9 urte igarota, ikusi da toki-entitateek premia espezifikoak dituztela LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko 8/2017 Foru Legea berme guztiekin aplikatu eta ezarri ahal izateko eta sexu- eta genero-aniztasunaren arloan politika publiko egokiak garatu ahal izateko.

Hortaz, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako LGTBI+ Kontseilua- ren barruan batzorde berezi bat eratu dezan gehienez ere sei hilabeteko epean, zeinean bermatuko baita Nafarroako Gobernuak eta toki-entitateek ordezkartza parekidea izanzen dutela, honako

eremu hauei buruzko oinarriak aztertu, eztabaidatu, adostu eta ezartzeko:

1.1. Foru-legearen berrikuspena, hainbat eremutatik: forala, tokikoa, soziala, kolektiboak, etab.

– Nafarroako toki-entitateek LGTBI+ politiken arloan dituzten benetako beharren diagnostikoa egitea plangintzaren, garapenaren eta finantzaketaren arloan.

1.2. Diagnostiko horretatik abiatuta, bultzada-, jarraipen- eta koordinazio-egiturei buruzko legeak egiteko aukeran sakontzea, toki- eta lurralde-entitatei zeregin aktiboagoa emanez, herritarrengandik hurbilen dauden entitateak direla kontuan hartuta.

1.3. Tokiko eremuan LGTBI+ politikak ezartzeko esparru estrategiko bat adostea (bidea, ibilbide-orria edo adostutako lan-esparrua), bai eta politika horiek garatzeko behar adinako finantzaketa-aukerak adostea ere.

1.4. Foru Komunitatean LGTBI+fobiari eta haren forma guztiei helduko dien lege berri baten edo lege-aldaketa baten oinarriak adostea eta finkatzea.

Iruñean, 2026ko martxoaren 23an

Foru-parlamentaria: Oihana Gallo San Román

## **11-26/MOC-00066. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Europako erakundeei formalki eska diezaien egin beharreko urratsak egiten has daitezen, defentsarako indar armatu bat abian jartzeko, estatu kideek soilik osatua, Europar Batasunean ezartzen diren baliabide eta helburuekin**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Europako erakundeei formalki eska diezaien egin beharreko urratsak egiten has daitezen, defentsarako indar armatu bat abian jartzeko, estatu kideek soilik osatua, Europar Batasunean ezartzen diren baliabide eta helburuekin.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru-parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko: Mozioaren jarraipena Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekin-tzako eta Euskarako Batzordeak eginen du.

### Zioen azalpena

NATO, Aliantza Atlantikoa izenez ere ezagutzen dena, 1949an sortu zen nazioarteko aliantza militar gisa, Ipar Atlantikoko Tratatua edo Washingtingo Tratatua sinatu ondoren.

Varsoviako Ituna, 1955eko maiatzaren 14an Sobietar Batasunak eta haren aliatuek sinatua, NATOrri emandako erantzun formaltzat hartu izan da; halatan, agerian geratu ziren Gerra Hotzean aurrez aurre zeuden bi bandoak.

NATOren batasuna hasieratik jarri zen auzitan. 1958an, Charles de Gaulle lehendakari frantsesak protesta egin zuen, Estatu Batuek erakundearen zuten zeregin hegemonikoa zela-eta. Urte batzuk geroago, eta Frantziak NATOk gainontzeko herriekiko elkartasuna adierazi bazuen ere Kubako misilen 1962ko krisian, De Gaullek defentsa independentea eratzeko asmoarekin jarraitu zuen, komandotik Frantziako flota erretiratu Atlantikoan eta Mantxako kanalean. 1966an, Frantziako indar armatuak NATOkomando integratutik kendu zituzten, eta Frantziakoak ez ziren tropa guztiak Frantziako lurraldetik ateratzeko agindu zuten.

Mugimendu horiek egiaztatu egiten dute kideen interes geopolitikoak ez direla beti bat etorri, kontrakoak ere izan baitira inoiz, eta horrek tirabira handiak sortu ditu kideen artean.

Gaur egun, NATO hogeita hamabi herrialdek osatzen dute; horien artean, Espainiako estatuak, 1982ko maiatzaren 30ean atxiki baitzitzaion. Lau urte geroago, zehazki 1986ko martxoaren 12an, herri-erreferendum bat egin zen, eta % 56,85 azaldu zen jarrera horren alde, erroldaren % 60 inguruko parte-hartzea izan zuen bozketan.

Nafarroan, ordea, organizazio militarrean egotearen kontrakoa izan zen emaitza inondik ere; izan ere, ezetzaren aldeko 130.828 boto zenbatu ziren (% 53,44), eta baietak 99.815 atxikipen baino ez zituen jaso (% 40,77), boto zuriak 14.167 izan ziren (% 5,79), eta 3.775 (% 1,53) baliogabeak.

80ko hamarkadaren amaieran eta 90eko hamarkadaren hasieran, sobietar blokea desegin zen. Mende berriak, bestalde, Txinako ekonomiaren susperraldi nabarmena ekarri zuen, eta horrek berekin

ekarri zuen indar militar gisa haztea. Eta munduko taula geopolitikoak erabat aldatu da azken urteotan.

Horri, azkenik, nabarmen lagundu dio Donald Trump Estatu Batuetako lehendakari izatera iristek. Horrek agerian utzi du Estatu Batuen eta Europaren interesen arteko erabateko desadostasun irmoa, eremu guztietan. Hor dira, horren erakusgarri, Trump jaunaren adierazpen publikoak, zeinetan eskatzen baitzuen organizazio armatuak Espainia kanpora botatzea. Horri gehitu behar zaizkio Groenlandiari buruz egin dituen errekerimenduak, itxuraz oraingoz “aparkatu” dituenak (Groenlandia Danimarkaren parte da, bai eta NATOk kidea ere).

Joan den otsailean Munichen egin zen goi-bilerak eta Estatu Batuetako estatu-idazkari Marco Rubiok egindako adierazpenek are argiago uzten dute gaur egungo mandatari estatubatuarren eta Europar Batasunekoaren artean dauden planteamenduak elkarrengandik urrun daudela —eta dibergenteak ere badirela—, azken horiei erabateko morrontza eskatzen baitzaie (jarrera hori, antza denez, organismo militarreko agintari gorena den Mark Rutte ere defendatzen du).

Ameriketako Estatu Batuek Irani berriki egindako erasoek agerian uzten dute beste behin nazioarteko zuzenbidearekiko errespetu falta erabatekoa, berriro ere kolokan jartzen baita Europako herrialdeen zeregina eta haien gaitasuna eta erabakitzeke marjina gerra-tentsiorik handieneko uneetan.

Bestalde, Estatu Batuek Errusiako petrolioaren merkaturatzeari egindako betoa altxatzeak herrialde amerikarraren eta Europar Batasuna osatzen dutenen arteko interes kontrajarriak erakusten ditu berriz ere. Espainiako Kanpo Arazoetako ministroak berak aipatu du egunotan oso garrantzitsua dela Europaren kontrolpean egotea disuasio- eta defentsa-ahalmena.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Europako erakundeei formalki eska diezaien egin beharreko urratsak egiten has daitezen, defentsarako indar armatu bat abian jartzeko, estatu kideek soilik osatua, Europar Batasunean ezartzen diren baliabide eta helburuekin.

2. Nafarroako Parlamentuak komenigarritzat jotzen du Europako eremutik zehatz daitezen defentsa-arloko etorkizuneko akordioak eta aliantzak beste herrialde eta erakunde batzuekin, NATOren egungo esparruaren alternatiba gisa.

Iruñean, 2026ko apirilaren 1ean

Foru-parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## **11-26/MOC-00067. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen baititu Israelgo estatuak Palestinako populazio zibilaren aurka egindako erasoak eta genozidio-ekintzak**

*CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK, ÚRSULA PARDO GARCÍA ANDREAK ETA EH BILDU NAFARROA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak, Úrsula Pardo García andreak eta EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen baititu Israelgo estatuak Palestinako populazio zibilaren aurka egindako erasoak eta genozidio-ekintzak.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioen eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Parlamentu honetako Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Duela 2 urte baino gehiagotik hona, biktimek eurek zuzenean erretransmititutako genozidio baten lekuko izan da mundua, inoiz ikusi gabeko suntsipen, basakeria eta gizagabetasun maila daukana, arlo horretako aditu guztien arabera.

2026ko otsailean, Osasun Ministerioaren eta Nazio Batuen Gai Humanitarioetarako Bulegoaren (OCHA) arabera, eta 2 urte eta 5 hilabetetan soilik, Israeliek 72.000 pertsona baino gehiago erail ditu eta 169.000 baino gehiago zauritu ditu. 1.760 pertsona hil ditu laguntza humanitaria bilatzen ari zirela. Egiaztatutako biktimen % 70 emakumeak, haurrek eta jaioberriak dira. Israeliek munduan pertsona

anputatu gehien duen lekua bihurtu du Gazako zerrenda. Save the Children GKEaren arabera, 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko irailaren 19ra, Israeliek 38 haur erail zituen Zisjordanian, haurren hilgarritasun-errekorra gaudituta, oso azkar gaudituzena, egungo gatazkaren lehen 11 egunetan sionismoak 1.000 haur baino gehiago erail baitzituen. 29 hilabetetan soilik, Israeliek 20.000 haur baino gehiago erail ditu, Bigarren Mundu Gerratik izandako kopururik handiena.

Ospitale eta ikastetxe ia guztiak suntsitu dituzte. Gazako zerrendara sartzeko laguntza humanitarioak legez kanpo blokeatuta jarraitzen du, nahiz eta Israeliek sartzeko konpromisoa hartu zuen. Gosea gerra-arma gisa erabiltzen jarraitzen du potentzia okupatzaileak, nazioarteko zuzenbidea, giza eskubideak eta haurren eskubideak urratuz. Zisjordanian eta Jerusalem Ekialdean, Israeliek bere koloniak hedatzen jarraitzen du, zeinak legez kanpokoak baitira Genevako IV. Konbentzioaren arabera, eta Israeliek Palestinako lurralde okupatuak anexionatzeko duen asmoa, berriz, nazioarteko zuzenbidearen aurkakoa da, halako moduan non ezinezkoa egiten baita bakea eraikitzea Palestinako Estatuaren aitortzatik abiatuta.

Hagako Nazioarteko Auzitegiaren irizpenek ezartzen dute Israeliek legez kanpo okupatzen dituela Palestinako lurraldeak eta apartheid sistema bat ezartzen duela Palestinako biztanleen gainean; beraz, munduko auzitegirik gorenak erakusten du gatazka ez dela berdinen arteko gerra bat, baizik eta potentzia okupatzaile baten (Israel) eraso sistematiko eta planifikatua, herri indigena baten gainekoa (Palestina), nazioarteko zuzenbidea etengabe urratzen duena eta herri horren aniztasunarekin amaiaraztea bilatzen duena. Bereziki deigarria da kristauen jazarpena, batez ere Jerusalem eta Belemen.

Arrazoi horiengatik, Yala Nafarroak eta Palestinak eskatuta, talde parlamentariook honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak:

1. Israelgo Estatuak Palestinako biztanleria zibilaren aurka egindako eraso eta genozidio-ekintzak erabat gaitzesten ditu, Genozidio Delitua Prebenitzeko eta Zigortzeko Konbentzioa, Genevako

Konbentzioa eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa urratzen baititu. Era berean, errefusatu eta gaitzetsi egiten ditu Palestinako biztanleen oinarrizko eskubideen ukazioa, populazioaren lekualdaketa behartua, etxebizitzaren eta azpiegituren suntsiketa sistematikoa eta energiaren, uraren, elikagaien eta medikamentuen horniduraren blokeoa, bereziki Gazako zerrendako biztanleei dagokienez.

2. Gogora dakar Israelek Palestinako lurralde okupatzea eta kolonizatzea nazioarteko zuzenbidearen aurkakoa dela, Hagako Nazioarteko Auzitegiak apartheid-erregimen gisa definitutako jardunbide segregazionisten eta zigor kolektiboko praktiken multzo bat ezartzen duela, oztopo direnak bake justu eta iraunkorra lortzeko. Orobat gaitzesten du Zisjordanian eta Jerusalem Ekialdean kolono israeldarrek biztanleria zibil palestinarren aurka baliatutako indarkeria, eta Israelgo agintariei erreklamatzeko die bete ditzaten Nazio Batuen ebazpenak, gatazkarren behin betiko konponbide politikoa lortzeko bidean.

3. Israelgo Estatuko Gobernuari exijitzen dio berehalako su-eten iraunkor eta erreala, baita arrazoi politikoengatik espetxeratutako 10.400 palestinar askatzea ere.

4. Gazako zerrendan laguntza humanitaria etengabe blokeatzeari behin betikoz eta modu iraunkorrean amaiera eman diezaion eskatzen dio Israelgo Estatuko Gobernuari, eta elikagaiak, ura, medikamentuak eta bizitzarako beharrezkoak diren beste baliabide batzuk banatzea ahalbidetu dezan eskatzen dio, hori guztia prestigio sendoko nazioarteko agentzia humanitarioek gainbegiraturako mekanismoen bidez.

5. Arrazakeria mota guztiak arbuiatzen ditu: judeofobia, islamofobia eta sionismoa.

6. Israelgo Estatuko Gobernuari exijitzen dio bermeak ezar ditzan, Gazako zerrendan lekualdatutako biztanleria zibila bere etxebizitzetara edo horietatik geratzen dena itzul dadin, bai eta palestinar errefuxiatu guztiak ere, Nazio Batuek onetsitako 194. ebazpenaren bidez nazioarteko zuzenbideak aitortutako itzulera-eskubideak jasotzen duen bezala.

7. Nazioarteko zuzenbidea eta nazioarteko zuzenbide humanitaria errespetatzeko exijitzen dio Israelgo Estatuko Gobernuari, eta Nazio Batuen sistemaren barruan nahiz hortik kanpo mekanismo eraginkorrak abian jartzea erreklamatzeko, Nazioarteko Zigor Auzitegiari eta Nazioarteko Auzitegiari buruzkoak barne, egindako gerra-krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak jazartzeko eta horiei amaiera emateko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premitzen du:

8. Israelgo egungo gobernuarekiko harreman instituzionalak eten ditzan, harik eta Nazio Batuen ebazpenen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren errespetua berrezarri arte.

9. Europako Parlamentuan abiarazitako ekimena babes dezan, Israelgo Estatuaren eta Europar Batasunaren arteko elkartze-akordioa bertan behera uzteko eta Israelgo Estatuarekiko armen salmentaren eta iragatearen gaineko nazioarteko enbargoa mantentzeko, bere eskumenen baitan enbargo horren eraginkortasuna bermatzeko konpromisoa hartuta.

10. UNRWArekin lanean jarrai dezan, prestigio handiko tresna den aldetik laguntza humanitaria helarazteko eta Gazako zerrenda berreraikitzen laguntzeko zuzeneko lankidetzak ezartzeko.

11. Bere eskumenen esparruan, Israelgo Estatua su-eten bat berehala betetzera behartzeko behar diren jarduketak ezar ditzan, nazioarteko zuzenbidea eta Nazio Batuen ebazpenak betetze ditzan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premitzen du Espainiako Estatuko Gobernuari honako neurri hauek hartzea eska diezaion:

12. Israeli enbargo militarra ezar dakion susta dezan eta haren ordezkariari banakako zehapenak aplikatu diezazkien, Nazioarteko Zigor Auzitegiak exijitzen duenaren arabera.

13. Justizia unibertsalaren mekanismoak berrezar ditzan.

14. Hegoafrikak Hagako Nazioarteko Auzitegiaren genozidioa dela-eta abiarazitako kausaren parte gisa pertsonatu dadin.

15. Mozal-legea indargabetu dezan eta bertan behera utzi ditzan Palestinako genozidioaren aurka modu baketsuan protesta egin duten pertsonen aurka irekitako administrazio-prozesuak.

16. Lege-esparruaren barruan neurriak har ditzan gerra-krimenekin edo gizateriaren aurkako krimenekin lotura zuzena duten gizabanakoak Espainiako Estatuaren lurraldean sartzen ez dela bermatzeko, eta konpromisoa har dezan Nazioarteko Justizia Auzitegiak gerra-krimenengatik eta genozidioagatik inputatutako pertsonak Espainiako lurraldean sartzen badira atxilotzeko nazioarteko aginduei erantzuteko.

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Foru parlamentariak: Carlos Guzmán Pérez, Úrsula Pardo García, Irati Jiménez Aragón eta Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio

**11-26/MOC-00026. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-  
tzen baita foru-lege proiektu bat aurkez dezan, lagun egiteko anima-  
lien edukitze arduratsua sustatzeko kenkari fiskalak ezartzeko**

*LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak, 2026ko apirilaren 14an egindako bilkuran, ezetsi egin du Félix Zapatero Soria jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita foru-lege proiektu bat aurkez dezan, lagun egiteko animalien edukitze arduratsua sustatzeko kenkari fiskalak ezartzeko. Mozioa 2026ko otsailaren 20ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-26/POR-00119. Galdera, suteak prebenitze aldera neguan egindako lanei eta heldu den udan suteak itzaltzeko eta/edo ekiditeko jarduketaren proposamenei buruzkoa***RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako galdera, suteak prebenitze aldera neguan egindako lanei eta heldu den udan suteak itzaltzeko eta/edo ekiditeko jarduketa-proposamenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Heltzeaz dira uda-garaia eta, urtero bezala, gure soroak eta herriak arriskuan jartzen dituen eguraldi-aldaketa.

Zer prebentzio-jarduketa egin dira neguan zehar eta zeintzuk dira gure erkidegoan heldu den udan suteak saihesteko eta/edo itzaltzeko jarduketa-proposamenak?

Iruñean, 2026ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

**11-26/PES-00092. Galdera, aerosorgailu-palen bolumenari eta birpotentziatze-prozesuen bidez edo bizitza baliagarriaren amaierara iristeagatik birziklatutako bestelako osagaien bolumenari buruzkoa***FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, aerosorgailu-palen bolumenari eta birpotentziatze-prozesuen bidez edo bizitza baliagarriaren amaierara iristeagatik birziklatutako bestelako osagaien bolumenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroa aitzindaria izan da energia eolikoa ezartzen, eta horrek, orain, bere ingurumen-pasiboen kudeaketa gidatzeko erronka dakar. Foru Komunitateko hainbat parketan birpotentziatze-prozesuak hasiko baitira, talde parlamentario hau kezkatuta dago, aerosorgailu suntsituen palen azken erabilera dela-eta, birziklatzen oso zaila den material konposatuz (erretxinak eta zuntzak) osatuak baitira. Osagai horien isurketak Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko Foru Legearen printzipioak urratzen dituzenez, bai eta 2030 Agendaren ekonomia zirkularrereko helburuak ere, galdera hauek egiten ditut:

Ba al duzue aerosorgailu-palen eta beste osagai ez-metaliko batzuen bolumen osoaren zentsurik

(tonatan), Nafarroan 2026tik 2030era bitartean birpotentziatze-prozesuen edo bizitza baliagarriaren amaieraren ondorioz sortuko direnena? Erantzuna baiezkoa bada, zenbatekoa da bolumen da guztira?

Ingurumen-kontrolerako zer ikuskapen egiten ari dira hasitako birziklatze-prozesuetan erretxinak lurpera lixibiatzea saihesteko?

Ba al duzue «alderantzizko ekodiseinuko» neurri espezifikorik edo eraispen-planik materialen % 100 balorizatuak eta lurperatu gabeak direla bermatzeko?

Birpotentziatzeak pala-altuera eta -tamaina askoz handiagoko aerosorgailuak eskatzen dituzenez, abifaunaren eta kiropteroen heriotza-tasari buruzko zer azterlan konparatibo ditu Ingurumen Departamentuak babes bereziko eremuetan edo migrazio-korridoreetan makinak aldatzeko baimena eman aitzin?

Iruñean, 2026ko martxoaren 27an

Foru-parlamentaria: Félix Zapatero Soria

## 11-26/PES-00093. Galdera, Moves Planean artatu gabe dauden eskabideak Tximista programan sartzeari buruzkoa

*ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, Moves Planean artatu gabe dauden eskabideak Tximista programan sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Joan den abenduaren 31n Moves Plana amaitu ondoren, Nafarroako Gobernuak garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskaera guztiei erantzun gabe, funtsik ez zegoelako:

– Eskatzaileak Tximista programan sartzen ahalko dira?

– Zenbat eskabide daude egoera horretan?

Iruñean, 2026ko martxoaren 27an

Foru-parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

## 11-26/PES-00094. Galdera, Etxegaray BHZko plantillaren salaketari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Etxegaray BHZko plantillaren salaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Etxegaray BHZko plantillaren salaketaren arabera, "jokabide larriki desdoituak, oldarkorrak edo delitu-izaerakoak dituzten adingabeak heltzen ari dira beste baliabide batzuetatik, zentroaren beraren balorazio-prozesurik behar ez dutenak". Halako zenbat adingabe sartu dira zentroan azken 3 urteotan?

Azken 3 urte hauetan, zentroak zenbat aldiz izan du gehiegizko okupazioa? (Data zehatzak eskatzen dira)

Zerk justifikatzen du hori?

Zer lan egiten da haiekin?

Zer neurri hartzen dira profilen nahasketak arrisku-egoerarik sor ez dezan, ez adingabeentzat, ez langileentzat?

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Foru-parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-26/PES-00095. Galdera, Nafarroan gizarte-bonu termikoa ordaintzeko atzerapenari buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Nafarroan gizarte-bonu termikoa ordaintzeko atzerapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein da Nafarroan gizarte-bonu termikoaren ordainketa atzeratzeko arrazoia eta zein da kasuko diru-sarrerak egiteko aurreikusten den data?

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Foru-parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-26/PES-00096. Galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen desgaitasuna baloratzeari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen desgaitasuna baloratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Javier Arza Porrás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andreari, idatziz erantzun dezan:

Hainbat gizarte-erakundek emandako informazioaren bidez jakin dugu badagoela administrazio-praktika bat desgaitasun-gradua eta -maila baloratzeke, aitortzeko eta egiaztatzeko prozeduratik kanpo uzten dituen gure erkidegoan bizi diren eta administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonak. Kontuan hartuta Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokari dagokionez dituen eskumenak, galdetu nahi dizugu ea praktika horrek zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-egoera eragin dezakeen.

Iruñean, 2026ko apirilaren 1ean

Foru-parlamentaria: Javier Arza Porrás

## 11-26/PES-00097. Galdera, erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileei desgaitasuna baloratzeari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileei desgaitasuna baloratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Javier Arza Porrás jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialeta-

ko, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu andreaki, idatziz erantzun dezan:

Hainbat gizarte-erakundek emandako informazioaren bidez jakin dugu badagoela administrazio-praktika bat desgaitasun-gradua eta -maila baloratzeko, aitortzeko eta egiaztatzeko prozeduratik kanpo uzten dituen gure erkidegoan bizi diren eta administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonak. Hartara, bizileku-kontzeptuaren balorazio murriztailea egiten da, halako moduan non legezko bizileku gisa soilik interpretatzen baita. Hala ere, aurrekari asko dago, zeinetan egiazko bizilekuaren kontzeptua erabiltzen baita eskubidetarako sarbiderako irizpide gisa. Berriena martxoaren 11ko 180/2026 Errege-dekretua da, zeinaren bidez arautzen baita Espainian dauden baina legezko bizilekuak Espainiako lurraldean ez duten atzeritarren osasun-

babeserako eta funts publikoen kargurako osasun-arretarako eskubidearen aitortza. Era berean, Kanarietako Autonomia Erkidegoak lege-dekretu bat onetsi berri du, zeinaren bidez desgaitasuna baloratzeko eskubidea aitortzen baitaie erkidego horretan benetan bizi direla egiaztatzen duten pertsona guztiei. Horregatik guztiagatik, honako hau galdetu nahi dizugu: legegintzaldi honetan, administrazio-egoera irregularrean dauden zenbat pertsonak ikusi dute errefusaturik desgaitasunaren balorazio-eskaera? Zure departamentuak zer plan darabil gogoan legezko bizilekurik ez duten pertsonen eskubideak eskuratzeko blokeo-egoera hori konpontzeko?

Iruñean, 2026ko apirilaren 1ean

Foru-parlamentaria: Javier Arza Porras

## 11-26/PES-00098. Galdera, sexuagatiko diskriminazio-kasu zehatzetan egindako salaketei edo kexei buruzkoa

*OIHANA GALLO SAN ROMÁN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihana Gallo San Román andreak egindako galdera, sexuagatiko diskriminazio-kasu zehatzetan egindako salaketei edo kexei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutako ari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Oihana Gallo San Románek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Lehendakari eta Berdintasun Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Sexuagatiko diskriminazioa dela-eta aurkeztutako salaketa edo kexen aitzinean jarduteko prozeduraren helburua da artatzea eta bideratzea sexuagatiko diskriminazio-kasu zehatzetan egindako salaketak edo kexak eta publizitatean nahiz hedabideetan emakumeen tratamenduarekin lotutakoak.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

Zenbat salaketa edo kexa aurkeztu dira 2025ean dira sexuagatiko diskriminazioagatik eta publizitatean eta komunikabideetan emakumei emandako tratamenduarekin lotuta?

Iruñean, 2026ko apirilaren 1ean

Foru-parlamentaria: Oihana Gallo San Román

## **11-26/PES-00099. Galdera, Nafarroako Gobernuaren Zaintza eta Segurtasun Pribatuko zerbitzuetako langileen 2024tik 2027ra bitarteko lan-osagarri buruzkoa**

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren Zaintza eta Segurtasun Pribatuko zerbitzuetako langileen 2024tik 2027ra bitarteko lan-osagarri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Talde Mistoko eta VOXeko foru-parlamentari Emilio Jiménez Román jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari: Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

2024tik 2027ra bitarte Nafarroako Gobernuaren zaintza eta segurtasun pribatuko zerbitzuak emateko esparru-akordioaren baldintza-agiria dela-eta, jakin nahi dugu ea sinatutako lan-osagarri guztiak ordaintzen ari zaizkien langileei, bereziki Tafallako Justizia Jauregiari dagokion zerbitzuaren kasuan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 28an

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-25/CIE-00005. Ikerketa-batzordea, Nafarroako Gobernuak azken lau legegintzaldietan Auzitegi Gorenaren Bigarren Salako Laugarren Ataleko 20775/2020 auzi berezian seinalatzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoei eginiko edo finantzatutako obra-lizitazio eta -esleipenak aztertze**

*BATZORDEAREN KONKLUSIOAK ONESTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak azken lau legegintzaldietan Auzitegi Gorenaren Bigarren Salako Laugarren Ataleko 20775/2020 auzi berezian seinalatzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoei eginiko edo finantzatutako obra-lizitazio eta -esleipenak aztertze ikerketa-batzordeak 2026ko martxoaren 31ko erabaki bat igorri dio Legebiltzarreko Mahaiari. Horren bidez, eskatzen du batzordearen konklusioak onesteko epea luza dadin.

Erregelamenduko 71. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honakoa erabakitzen da:

**1.** Nafarroako Gobernuak azken lau legegintzaldietan Auzitegi Gorenaren Bigarren Salako Laugarren Ataleko 20775/2020 auzi berezian seinalatzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoei eginiko edo finantzatutako obra-lizitazio eta -esleipenak aztertze ikerketa-batzordeak bere lanak, konklusioen eztabaida eta bozketa barne, amaitzeko epea 2026ko ekainaren 30era arte luzatzea.

**2.** Erabakia hau Nafarroako Gobernuak azken lau legegintzaldietan Auzitegi Gorenaren Bigarren Salako Laugarren Ataleko 20775/2020 auzi berezian adierazitako pertsona fisiko nahiz juridikoei eginiko edo finantzatutako obra-lizitazio eta -esleipenak aztertze ikerketa-batzordeko kideei eta legelari nagusiari jakinaraztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

